



**ENEKO GORRI**  
EUSKARA TEKNIKARIA

## Mende erdi

par Euskal Herriko ikastolak duela mende erdi sortu ziren, guraso multzo txiki baten ausardiari esker. Bost hamarkada berantago, 4.000 ikasle inguru biltzen dira 36 ikastolatan. Azken urteetan, garapen fase batean kokatzen dira ikastolak: 2010ean ikasleen %5 ikastolatan eskolatuak ziren, 2018an %10 dira eta 2030ean %20 izango dira.

Ikastolako gurasoen soziologia asko aldatu da. Jendartea bera ere, 1969tik asko aldatu da funtsean. Lurralde honetako jende askok bezala, ikastola beti izan dut nire bizian presente: ikasle gisa 18 urte arte, irakasle gisa ondotik eta guraso gisa orain. Nire ezagun asko ikastoletako irakasle dira, edo langile, edo guraso... Lagun arteko solasaldietan, gin-tonikak barnea berotzen eta mihia askatzen duen tenorean, "ikastola" izaten da asko aipatzen dugun gaia. Euskal Herrian, denek badugu iritzi bat ikastolak bezalako egitasmo kolektiboekiko.

Jendartearen makurretatik isolatua litzatekeen ikastola posible balitz bezala arrazoinatzen dugu sarritan. Eta nago ea ez dugun idealizatzen sekulan existitu ez den ikastola bat. Jarrera hori eroso da turnadak bata bestearen ondotik iristen diren gauetan, baina ekintzarako tenorea iritsi denean beldur naiz ez ote duen enbor huts horrek oihana gordetzen.

Gaurko ikastolek dituzten erronkak ukatu gabe, ondoko lerroak erabili nahi nituzke herritik eta herriarentzat sortutako tresna horren bi ekarpen nagusi azpimarratzeko. Gaur egungo gazteria begiratzea besterik ez da: EHZko biltzar nagusia izan edo Ipar Euskal Herriko gaztetxeen arteko bilkuretan, gazteak euskaraz ari dira natural-natural. Kabalkada, Libertimendua eta Toberak ikastoletatik pasatako gazte belaunaldiek euskaratik eta euskaraz sortzen dituzte. Gure garaian ez zen hala; frantsesa zen norma. Etorkizunean lurraldean eraginen duten belaunaldiak geroz eta euskaldunagoak izango dira. Eta ez da gutti.

Bestalde, guraso belaunaldi berriak auzolanaren bidean eman dituzte ikastolek. 1978an 200 familia inguru ziren, gaur egun 2.000! Gurasoak gutxiago inplikatzeko direla deitoratzen ahal dugu, baina kopuruz gehiago dira euskarazko irakaskuntzaren alde taloak erretzeko, xintxuketa lanak egiteko edo garbiketa txandak segurtatzeko. Ekintzaletasuna eta euskaltzaletasuna sustatzeko bide berriak asmatu behar ditugu. Eta guri dagokigu guraso berri guziekin inklusio eredu berriak asmatzea. Ezinezkoa izanen zaigulako euskararen berreskuratzearen bataila irabaztea, militantziaren bataila ez badugu gainditzen. ●

## Idazteaz



**CASTILLO SUAREZ**  
IDAZLEA

ban Zalduak behin galdetu zidan ea zer nuen nahiago, idaztea edo idazle izatea. Seguru nago idaztea esan nio-la, ego handi(egi)a agertzearen beldurrez. Eta bada egia hein handi batean. Niretzako idaztea ez da gauza terapeutiko bat, ez da hondoratuta nagoenean egiten dudak zerbait, ez da hobeki sentiarazten nauen zerbait. Pozik egiten dudak gauza bat da, aztoratuta idazten dut beti. Haatik, idazle izateak gauza asko eman dizkit. Nire lagunak onenak, esate baterako, literaturari esker ezagutu ditut. Eta arriskatuko naiz esatera idatzien bitartez seduzitu dudala bat

baino gehiago, edo bederen erakargarri egin zaiela nire alderdi hori. Tarteka sare sozialen bidez maitasun/miresmen mezuak jasotzen ditut, eta ez dakit askotan zer erantzun. Laguntasun hitzak besarkatzen dituen era guztietako harremanak egin ditut literaturari esker. Etxeko tiradera batean oparitutako boligrafo, luma eta kaierak gordetzen ditut. Azkenekoa kutxatik atera gabe daukat, paperen gainean, eta ez dakit oso ongi zer egin berarekin. Poltsan sartu eta galtzera arriskatu, edo ezagutzen ez dudak pertsona horren keinu ederra niretzako gorde. ●